

# KULTUR AGENDA





Aitzoain
Añezkar
Artika
Ballariaian
Berriobeiti
Berriogoiti
Elkarte
Larrageta
Lotza
Oteitza



# BERRIOBEITI

**Azaleko argazkiak:** behetik gora, Zendearen Eguneko bazkaria eta karrikadantza (irailak 24, Añezkarren); “Qué buen día”, Maite Guevararena (Larrageta, abuztuak 5); eta V. Artika Challenge (irailak 4).

AYUNTAMIENTO BERRIOPLANO
BERRIOBEITIKO UDALA

Argitaratzailea: Berriobeitiko Udala
L.O.: NA 253-2015
Doan banatzen da

Casa de Cultura
MARIADEMAEZTU
Kultur Etxea

# BERRIOBEITIKO KULTUR AGENDA

UDA/2022

Editorea: Berriobeitiko Udala
Doako zabalpena


## ›› OHARRAK

**PUNTUALTASUNA**
Ikuskizuna hasi ondoren, ezin izanen da inor aretoan sartu.

**SOINU-SEINALEAK**
Aretoan sartzerakoan deskonektatu beharko dira.

**GRABAKETAK ETA ARGAZKIAK**
Debekatuta daude.

**JANARIAK ETA EDARIAK**
Aktoreek eta ikusleek merezi duten begiruneagatik, barne-ikuskizunetan ezin izanen da jan, ezta edan ere.

**ITZULTZEAK**
Sarrera bat erosteko ordaindutako dirua itzultzeko arrazoi bakarra ikuskizuna bertan behera uztea izanen da.

**SARRERAK**
Zenbakidun sarrerak.

## ›› VENTA DE ENTRADAS

Ikuskizunetarako txartelak María de Maeztu Kultur Etxean erosten ahalko dira **emanaldi bakoitzaren aurreko astean. Ez da telefono bidezko erreserbarik onartuko**.

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

**LEIHATILAN**
(Kultur Etxeko Atezaindegian). Ikuskizun bakoitza hasi aurreko ordubete lehenagotik.

**ALDEZ AURRETIK**
**www.berrioplano.es** webgunean eta Kultur Etxeko atezaindegian, 16:00etatik 21:00etara.

## ›› KULTUR EKIPAMENDUA

### KULTURA ZERBITZUA
Udaletxean **Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:** cultura@berrioplano.es

**MARIA DE MAEZTU KULTUR ETXEA**
Iturribidea, 1. Artika.
**Tel:** 948 38 32 54
**Kafetegi-Taberna**
**Tel:** 948 78 31 57

### EUSKARA ZERBITZUA
Udaletxean
**Tel:** 948303129 / 634515384
**Posta elektronikoa:** euskara@berriobeiti.eus

### KIROLA ETA GAZTERIA ZERBITZUA
Udaletxean **Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:** deporteyjuventud@berrioplano.es

### LIBURUTEGI PUBLIKOA
Maria de Maeztu Kultur Etxean
**Udako ordutegia:** 08:30-14:30
**Neguko ordutegia:** 14:00etatik 20:00etara
**Tel:** 948 38 26 22
**Posta elektronikoa:** bibliarc@cfnavarra.es

### ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA
**BERRIOBEITI**
Nuestra Señora de la Purificación, 11.
**Ordutegia:** 10:00etatik 22:00etara.
**Tel:** 948 91 04 23 (kafetegi-taberna)

**ARTIGUNE I**
**ARTIKA** Leonor Akitaniakoa, 30
**Informazioa:** 948 30 31 29

**ARTIGUNE II**
**ARTIKA** Leonor Akitaniakoa, 26
**Informazioa:** 948 30 31 29

### ORREAGA MUSIKA ESKOLAKO PATRONATUA
María de Maeztu Kultur Etxea
**Tel:** 616 72 52 18
**Posta elektronikoa:** orreagamusika@gmail.com

### KONTZEJU ETXEAK
**AITZOAIN**: Oronsuspe auzoa, 3

**AÑEZKAR**: San Andres, 6
**Tel:** 618 77 84 61

**ARTIKA**
Kontzeju Etxea San Marcial, 9
**Tel:** 948 38 37 93
“María Domínguez” Gizarte-Etxea María Domínguez, 3
**Tel:** 948 38 37 93

**BALLARIAIN:** San Pedro, z/g

**BERRIOGOITI:** Santa Eulalia, 39
**Posta elektronikoa:** concejoberriosuso@yahoo.es

**BERRIOBEITI:** Kale Nagusia, 2

**ELKARTE:** Purificación, 16

**LARRAGETA:** San Esteban, z/g
**Tel:** 948 30 21 59

**LOTZA:** San Joan, z/g
**Tel:** 690 68 68 50

**OTEITZA:** San Joan, 6
**Tel:** 651 65 83 14

## ›› LIBURUTEGIA

### UDAKO ORDUTEGIA

Zerbitzuak: liburuak eta ikus-entzunezkoak mailegutan uztea; aldizkariak eta eguneroko egunkariak; internet eta posta elektronikoa; arreta eta aholkularitza uneoro. Artikako liburutegi publikoa Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean dago sartuta, eta katalogoa **www.navarra.es** webean dago kontsultagai.

María de Maeztu
Kultur Etxea (Artika)
**Udako ordutegia:** 08:30-14:30
(Ekainak 15-Irailak 14)
**Neguko ordutegia**
14:00-20:00
**bibliarc@navarra.es**
**948 38 26 22**



## ›› LIBURUTEGIA ETXEAN BEREAN

### MUGIKORTASUN MURRIZTUKO LAGUNENTZAT

Berriobeitiko herrietan bizi diren lagunentzat, Nafarroako Liburutegi Publikoetako erabiltzaile txartela eta mugikortasun murriztua izanez gero.

Eskaerak
**bibliarc@navarra.es**
**948 38 26 22**
**Udako ordutegia:**
08:30-14:30
(Ekainak 15-Irailak 14)
**Neguko ordutegia**
14:00-20:00

## ›› KULTUR ETXEA, FACEBOOKEN

### JARRAIGUZU!

Kultur Etxea facebooken

**5, 6, 7** OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA

JAIAK

## Larrageta

**05** OSTIRALA

KALE IKUSKIZUNA

## “Qué buen día”

CÍA. MAITE GUEVARA

**Larragetako pilotalekua**
**Ordua:** 19:00
**Publikoa:** jende guztiarentzat
**Iraupena:** 60 minutu
**Antolatzailea:** Kultura Zerbitzua, Larragetako Kontzejuarekin elkarlanean





Euria, elurra edo kazkabarra eginik ere, Martinarentzat edozein egun izan daiteke egun ona. Gaur, Martina erakustera etorri zaigu amets egiten duenak eta begiak ongi irekitzen dituenak aukera amaigabeko mundu bat ikusiko duela. Ederki pasatzeko gogoz dabilen adin guztietako jendearendako clown ikuskizuna da. (Ez etorri jende aspertua, tranpatia, ezta jostatzeko edo imajinatzeko gogorik ez duena ere). Jostatzera etorri ez bagara, zertara demontrera etorri gara, ba?

## 11 OSTEGUNA

HAUR KIROLA

### 3x3 plaza futbola

OSASUNA FUNDAZIOA



**Artikako plaza Nagusia**
**Ordua:** 16:30
**Antolatzaileak:** Osasuna Fundazioa eta Berriobeitiko Udala
**Taldeen izen-ematea:** egun berean, hasi baino ordu erdi lehenago.

**Hainbat adinetako neska-mutilendako 3x3 txapelketa da. Finalistek herrien arteko final handian parte hartzeko aukera izanen dute.**
**SARIAK ETA ZOZKETAK IZANEN DIRA!**

## 26, 27, 28 OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA

JAIAK

### Berriogoiti

## 26 OSTIRALA

KALE IKUSKIZUNA

### “Chef Nature”

MARKELIÑE

**Berriogoitiko pilotalekua**
**Ordua:** 18:30
**Publikoa:** jende guztiarentzat
**Iraupena:** 55 minutu
**Antolatzailea:** Kultura Zerbitzua, Berriogoitiko Kontzejuarekin elkarlanean



Atari zabaleko jatetxe batean gaude. Baratzea dauka. Mugikorrak eta pantaila guztiak kanpora! Hemen zerbitzatzen den menuak naturarekin lotuko gaitu berriro! Menua magikoa, sendagarria eta oso dibertigarria da. Erritmo biziz eta keinuz egina da, materialak irudimenez erabilita. Gatz pixka batekin eta eromenarekin gozatu-ta! Bon appétit!

## PROGRAMAZIOA ABUZTUA 2022

### ›› 2022-2023ko UDAL IKASTAROAK. IZEN-EMATEA

**IZEN-EMATEA** / ABUZTUAK 31 - IRAILAK 7

**Helduendako jarduerak:** zumba, yoga, pilates, swing, gimnasia aktiboa, eta erorikoei aurrea hartzeko eta mugikortasuna lantzeko tailerra.
**Haurrendako jarduerak:** jolas kooperatiboak, Go!azen-ekin dantzan, judoa, eskupilota, gimnasia erritmikoa eta eskalada.
**Gazteendako jarduerak:** gazteendako aisia gunea, jolasak eta jarduerak.

**Begiratu udal eskaintza osoa, abuztuan zure postontzira iritsiko den foiletoan.**

EMAZU IZENA!

Telefono bidez
012 – Infolocal
**Ordutegia:** 08:00-18:00
**Ordainketa eta matrikula:**
Irailak 9, 12 eta 13




## PROGRAMAZIOA IRAILA 2022

### 02 OSTIRALA

**IBILALDI OSASUNGARRIA**




### Bizitza aktiboa

Ateraldia oinez, “Ibilaldi osasungarriak” programaren baitan, hilabete bakoitzeko lehen ostiraletan.

**Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikinetik**
**Ordua:** 10:00
**Iraupena:** ordu eta erdi
**Izen-ematea:** izenik eman gabe, aski da topagunean agertzea; hantxe, gidaria egonen da

### 04 IGANDEA

**HERRI LASTERKETA**

### V. Artika Challenge

ARTIKAKO KORRIKOLARIS KIROL KLUBA

Bi urteko geldialdiaren ondotik, Artika Challenge herri lasterketa itzuliko da. 7,14 Km ditu eta gehienez % 18,8ko malda. Artika Berriko María Domínguez plazatik abiatu, eta Berriobeiti eta Berriozarren barna ibiliko da. Bi kategoria dira: absolutua eta haurrak (aurre-benjaminak, benjaminak, kimuak eta haurrak).

**María Domínguez plaza (Artika Berri)**
**Irteerak:** 10:30 (haurrak); 12:00 (absolutua)
**Izen-ematea:** www.rockthesport.com
**Antolatzailea:** Korrikolaris Kirol Kluba
**Laguntzailea:** Artikako Kontzejua
**Argibideak:** Artikako Korrikolaris klubaren Facebook eta Twitter



## 9, 10, 11 OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA

**JAIAK**

### Añezkar Elkarte Artika

## 09 OSTIRALA

**KALE IKUSKIZUNA**

### "Cataplum!"

CIRCO LA RASPA

**Añezkarko pilotalekua**
**Ordua:** 17:00
**Publikoa:** jende guztiarentzat
**Iraupena:** 60 minutu
**Antolatzailea:** Kultura Zerbitzua, Añezkarko Kontzejuarekin elkarlanean











*Cataplum* onomatopeiak publikoaren irri, txalo eta dibertsioaren leherketa adierazten du... inork kolperik jaso gabe eta inor erori gabe. Ikuskizun dinamikoa, akrobatikoa, arras irrigarria; zenbait jokotan, gainera, publikoa bera izanen da protagonista. Zirku-diziplinak erabiliz, hala nola diaboloak, orekak, malabareak, akrobazioak, etab., dena umorez beterik, berdin harrapatzen ditu helduak eta haurrak. *Torri di Chous* eta *Richi di Chous* ikuskizuneko bi pertsonaiak bitxiak dira eta harriturik utziko gaituzte, zirkuko trebezia arraro eta harrigarrien bidez. Helburua: *Cataplum* ez egitea!

## 11 IGANDEA

KALE IKUSKIZUNA

### "Panoli Kabareta"

GANSO & CÍA

**Elkarteko plaza**
**Ordua:** 18:30
**Publikoa:** jende guztiarentzat
**Iraupena:** 45 minutu
**Antolatzailea:** Kultura Zerbitzua, Elkarteko Kontzejuarekin elkarlanean



Artista izan nahi dute. Autolaguntzarako liburu bat irakurri zuten eta, eskarmenturik ez izan arren, horri ekin zioten. Hori bai autoestimu gaindosia! Historiak ez ditu gogoratuko, baina irri ajataka arituko gara haiekin!

Keinuzko clown ikuskizun honetako bi pertsonaiek sekulako ahalegina egiten dute atsegina emateko, eta zirku-parodia arras dibertigarria eskainiko digute, magia, vaudevillea eta oreka uztarturik.

## ›› ZENDEAREN EGUNEKO BAZKARIA (AÑEZKAR, IRAILAK 24)

TXARTELAK / IRAILAREN 12tik 16ra

Bi urteko etenaldiaren ondotik, Zendearen Eguna itzuliko da eta, harekin batera, senidetasunezko bazkaria Berriobeitiko udalerrian erroldaturiko jendearentzat. Aurtengoan, jaia Añezkarren ospatuko da.

**Erroldatuendako bakarrik**
**Non:** udaletxeko bulego orokorrak (Udaletxe plaza, 1, Berriobeiti)
**Ordutegia:** 09:00-14:00
**Telefonoa:** 948 30 31 29
**Prezioa:** 15 € helduen menua / 10 € haurren menua



## 16, 17, 18 OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA

**JAIAK**

### Lotza

## 16 OSTIRALA

**KALE IKUSKIZUNA**

### “Fábrica de los sueños”

PRODUCCIONES KINSER

**Lotzako plaza**
**Ordua:** 18:30
**Publikoa:** jende guztiarentzat
**Iraupena:** 55 minutu
**Antolatzailea:** Kultura Zerbitzua, Lotzako Kontzejuarekin elkarlanean







Kiny eta Jano, aita-semea dira fikzioan eta errealitatean, eta hezkuntzako eta familiako balioen garrantziaz mintzatuko dira istorio samur honetan. Janok, beste haur aunitzek bezala, oraindik ez daki zer izan nahi duen handitan: astronauta?, zerbitzaria? maisua? edota, musikaria, agian? Haren amets-fabrika ziztuan ari da lanean; beraz, ezer ere ez dela erraza eta ahalegina egitea nahitaezkoa dela erakusten ahalegintzen da Kiny, baina era berean, gure helmuga lortuko badugu, huraxe gogo handi-handiz desiratu beharko dugula.

## Irailak 19 - Urriak 2

ERAKUSKETA

### Artikako II. Argazki Rallya



**Artikako María de Maeztu Kultur Etxeko erakusketa gela**
**Ordutegia:** astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:00etara; asteburuan, Kultur Etxean jarduerarik dagoen bakoitzean
**Sarrera:** librea
**Antolatzailea:** Artikako Kontzejua

## 24 LARUNBATA

ZENDEAREN EGUNA

Berriobeitiko Udala osatzen duten 10 herrien arteko senidetasunezko jaia.

**Añezkar**
**Foileto bat banatuko da etxez etxe egitarauaren berri emateko**





## 25 IGANDEA

HERRI LASTERKETA

### Ezkidiko krosa

Lasterketa berri hau Zendearen Eguneko asteburuan eginen da. Eguna, aurten, Añezkarren ospatuko da, irailaren 24an. Bi distantziez gain, aurten herri martxa bat eta haur lasterketa bat ere antolatu dira, jende guztiak kirol egun handi hori goza dezan.



**Añezkar**
**Non:** irteera eta helmuga Añezkarren
**Ordua:** 12:00
**Ibilbidea:** Añezkar eta Larrageta arteko bideetan barna, eta Ezkidi mendiko magaletan zehar
**Luzerak:** 5 eta 10 km
**Izen-ematea:** www.herrikrosa.eus
**Antolatzailea:** S.D.C Ezkidi
**Laguntzailea:** Berriobeitiko Udala